

Tutoretza Plana (TP)

Matematikako Gradua

Zer da Tutoretza Plana?

2001. urtean Zientzia eta Teknologia Fakultateak ezarri zuen protokoloa da. Honen bidez, sarrera berriko ikasle orori tutore akademiko bat esleitzen zaio, Ikastegian graduiko ikasketak egiten dituen bitartean orientazioa eta aholkuak jaso ditzan.

Nortzuk dira tutore akademikoak? Nork esleitzen ditu?

Matematikako graduiko tutore akademikoak Matematika saileko irakasleak dira. Graduiko koordinatzailea arduratzen da Matematikako graduiko tutoreak esleitzeaz.

Sarrera berriko ikaslea naiz, tutore akademiko bat esleitzen ez badut, zer egin behar dut?

Ez. Behin matrikula itxita, graduiko koordinatzaileak esleituko dizu tutore akademiko bat. Zure taldearen *aula base* gelan dagoen iragarki taulan argitaratuko dira tutoreen esleipena eta harremanetarako datuak.

Nire tutore akademikoa nor den ahaztu dut, edo sarrera berriko ikasleei tutoreak esleitzen dituen zerrendan ez naiz agertzen, norengana jo behar dut?

Harremanetan jarri graduiko koordinatzailearekin, graduiko ikasle guztiei esleituriko tutoreak ezagutzen ditu eta. Graduiko koordinatzailearen posta elektronikoa eta bulegoa kontsultatzeko, Zientzia eta Teknologia Fakultateko webgunean argitaraturiko ikaslearen gida begiratu.

Ikasturte berri bat hastear dago, nire tutore akademikoa aldatuko da?

Ez. Matematikako graduiko ikasketak egiten dituzun bitartean, ez da tutore akademikoa aldatuko, ezohiko kasuetan izan ezik.

Zeintzuk dira tutore akademiko baten eginkizunak?

Zure graduiko ikasketak egiten dituzun bitartean, esparru akademikoari, pertsonalari eta profesionalari dagozkien kontuei buruz aholkatuko dizu tutore akademikoak. Zure tutorearekin eztabaida ditzakezun gai batzuk:

- 1) Esparru akademikoa:
 - a) Sistema unibertsitarioari buruzko informazioa.
 - b) Esparru akademikoan sor daitezkeen zailtasunei aurre egiteko aholkularitza.

- c) Ikasketa baliabideei, informazio iturriei eta kanpusean zein ikastegian erabili daitezkeen teknologiei buruzko informazioa.
 - d) Zure curriculum-ibilbidea aukeratzeko orientazioa, nahi duzun prestakuntza unibertsitarioa lor dezazun (hautazkoen hautatzea...).
 - e) Etekin akademikoa handitzeko ikas-metodoei buruzko informazioa.
 - f) Hezkuntza prozesuan ikaslearen erantzunkidetasuna bultzatzea.
 - g) Beste jarduera akademikoetan parte hartzeko orientazioa: mugikortasun programak (Erasmus, Sicue...), prestakuntza osagarriko jarduerak, enpresa praktikak, etab.
 - h) Helburuak argitzea, lanen plangintza egitea eta lorturiko emaitza akademikoak aztertzea.
- 2) Esparru pertsonala:
- a) Bizitza unibertsitarioan ikasleen parte-hartzea bultzatzea, bai jarduera akademikoetan bai kudeaketa edo aisialdi jardueretan, bere trebetasun sozialak hobetzeko helburuarekin.
 - b) Prestakuntza integralaren prozesuan laguntzea.
 - c) Esparru akademikoan hausnartzeko, hizketan jarduteko eta beregain izateko gaitasunak sustatzea.
 - d) Arreta berezia behar duten kasuetan, zerbitzu egokietara desbideratzea.
- 3) Esparru profesionala:
- a) Proiektu profesionala aukeratzeko orientazioa.
 - b) Zeharkako gaitasunak sustatzea, adibidez:
 - i) Trebetasun sozialak.
 - ii) Talde-lana.
 - iii) Konpromisoa.
 - iv) Erabakiak hartzea.
 - v) Lidergoa.
 - c) Nola egin curriculum vitae-a.

Irakasgai batean ikasiriko kontzeptuei buruzko zalantzak baditut, nire tutorearengana jo dezaket horiek argitzeko?

Ez. Irakasgaietako eskoletan azalduko gaiei buruzko zalantzei dagokienez, zure taldean irakasgai horiek ematen dituzten irakasleek argitu beharko dituzte, haien tutoretza orduetan.

Nire tutorearengana jo behar dut nahitaez?

Ez da nahitaezkoa berarekin hitz egitea. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko kontaktua izatea aholkatzen da. Harreman hori errazteko helburuarekin, *aula base* gelan argitaraturiko esleipenean, ikasle berri bakoitzari dagokion tutorea azalduko da, baita lehenengo bilerarako hitzordua ere.

Nire tutore akademikoarekin dudana lehenengo hitzordura joan ezin banaiz, zer egin behar dut?

Harremanetan jarri berarekin, ahal dela, posta elektronikoaren bidez, lehenengo bisitarako hitzordu berria finkatzeko.

Noiz hitz egin beharko nuke nire tutore akademikoarekin?

Ikasle bakoitzak aukeratzen du noiz jo nahi duen bere tutorearengana. Komenigarria da gutxienez lauhilabetea behin biltzea, lorturiko emaitzen eboluzioa azter dezazuen. Hurrengo ikasturteari dagokion matrikula egin baino lehen, elkarrekin hitz egitea baliagarria izan daiteke, batez ere gainditu gabeko irakasgaiak badituzu.

Aholkuak eskatzeko beste modurik badago?

Bai. 2015/16 ikasturtetik Matematikako Graduan berdinen arteko tutoretza plana (BTP) egiten da. Plan honetan goiko mailetakoko ikaskideek ikasle berriei haien unibertsitateko bizitzaren hasieran laguntzen diete. Hartarako, ikasturtean zehar lehenengo mailako ikasleen kezka eta zalantzak argitzeko informazio saioak egituratzen dira.